

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko azaroaren 21etik 27rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/11/23

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.**

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 11koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den ostalaritzaren sektoreko estatu-esparruko V. lan akordioa luzatzeko akordio partziala. **2020-14753 xedapena - 3 or.**
- **Soldatak Bermatzeko Funtsa.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 11koa, Soldatak Bermatzeko Funttsaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 33. artikuluan ezarritako prestazioak eskatzeko eredua. **2020-14756 xedapena - 6 págs.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/11/26

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** - Lan hitzarmen kolektiboak. - Ebazpena, 2020ko azaroaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den segurtasun-enpresen 2021erako estatuko hitzarmen kolektiboa. **2020-15038 xedapena - 70 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/21

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.** - Gizarte Segurantza. Ekitaldiaren itxiera. - ISM/1080/2020 Agindua, azaroaren 20koa, zeinaren bidez arautzen diren Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundeentzat 2020ko ekitaldia ixteko eragiketak. **2020-14653 xedapena - 6 or.**

2020/11/24

- **GORTE NAGUSIAK.**

- **Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 15koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren esparruan. 2020-14772 xedapena - 1 or.
- **Neurri sozialak.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 19koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko gizarte-neurri osagarriak hartzen dira langabezia-babeserako eta kultura-sektoreari laguntzeko. 2020-14773 xedapena - 1 or.
- **Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 19koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila azaroaren 3ko 33/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira Estatuko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeei laguntzeko. 2020-14774 xedapena - 1 or.

- **OGASUN MINISTERIOA.** - Balio Erantsiaren gaineko Zerga, HAC/1089/2020 Agindua, urriaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen den maiatzaren 12ko HFP/417/2017 Agindua. Horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Zergaren gaineko Erregelamenduaren 62.6 artikuluan (abenduaren 29ko 1624/1993 Errege Dekretuak onartua) ezarritako Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Egoitza Elektronikoen bidez eramatea garatzen duten zehaztapen arauemaile eta teknikoak arautzen dira, eta beste zerga-araudi bat aldatzen da. 2020-14775 xedapena - 42 or.

2020/11/25

- **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.** - Antolamendua. - 1041/2020 Errege Dekretua, azaroaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua. Horren bidez, ministerioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen da, bai eta abuztuaren 4ko 735/2020 Errege Dekretua ere, zeinaren bidez garatzen den Osasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa, eta aldatzen den urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua. Horren bidez, ministerioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen da. 2020-14878 xedapena - 4 or.

2020/11/26

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** - Medikamentuak. - 957/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa, zeinaren bidez arautzen diren gizakientzako sendagaiekin egindako behaketa-azterketak. 2020-14960 xedapena - 19 or.
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.** - Gizarte Segurantza. - ISM/1099/2020 Agindua, azaroaren 23koa, zeinaren bidez ezartzen diren 2020ko ekitaldirako kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarri arautuak, Gizarte Segurantzaren Ikatz-meatzaritzako erregimen berezian. 2020-14965 xedapena - 8 or.

2020/11/27

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.** - Abiazio zibila. - Ebazpena, 2020ko azaroaren 6koa, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren Zuzendaritzarena, zeinaren bidez ematen den betetze-metodo alternatibo bat, Batzordearen 2012ko urriaren 5eko 965/2012 (EB) Erregelamenduari ARO.GEN.120. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horren bidez, aire-operazioekin lotutako baldintza teknikoak eta administrazio-prozedurak ezartzen dira, tripulazioen jardueren programazioa argitaratzean eskatzen den gutxieneko aurrerapena murrizteko, COVID-19aren krisi globalak sortutako egoerari dagokionez. 2020-15062 xedapena - 2 or.
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** - Enplegurako lanbide heziketa. - TES/1109/2020 Agindua, azaroaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen den martxoaren 28ko TMS/368/2019 Agindua. Horren bidez, uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen da, zeinaren bidez garatzen den irailaren 9ko 30/2015 Legea. Horren bidez, lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen da, administrazio eskudunen prestakuntza-eskaintzari eta haren finantzaketari dagokienez, eta ezartzen diren hori finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak. 2020-15063 xedapena - 5 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/11/24

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 3/2020 FORU ARAUA, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena. 5040 xedapena - 15 or

2020/11/26

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 2/2020 FORU ARAUA, urriaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018ko Kontu Orokorra onartzen duena. **5078 xedapena - 9 or.**

2020/11/27

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 9/2020 FORU DEKRETU-ARAUA, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa. **5102 xedapena - 4 or.**
- **AGINDUA,** 2020ko azaroaren 24koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, COVID-19aren eragin ekonomikoaren ondorioz krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen Bideratu COVID-19 Programa arautzen duen agindua aldatzeko dena. **5108 xedapena - 1 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/23

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaiaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001455011981). **270 xedapena - 21 or.**

2020/11/24

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.**
 - 2020ko ekainaren 10eko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, zeinen bidez COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzko maiatzaren 26ko 6/2020 Foru Dekretu Arauemailea berretsi egiten dan. **750 xedapena - 1 or.**
 - 2020ko urriaren 21eko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, zeinen bidez COVID-19aren pandemiaren ondorioz UEFA Women's Champions League 2020 ekitaldiaren amaierako fasearen zerga araubidea eta balio erantsiaren gaineko

zerga berriro doitzeko neurriak zehazten dituen abuztuaren 25eko 9/2020 Foru Dekretu Arauemailea berresten dan. **751 xedapena - 1 or.**

- 2020ko urriaren 21eko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, zeinen bidez urriaren 6ko 10/2020 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzen den, COVID-19a dela-eta, presazko tributu-neurri osagarriak hartzen dituen Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondare eskualdaketetan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta makina edo aparatu automatikoak erabiliz egiten den jokoaren gaineko tributuan. **752 xedapena - 1 or.**
- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 13koa Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkariek emanda. Honen bitartez, eta Abadiñoako Udalak horrela eskatuta, udal horretan 2020ko irailaren 29ko Ebazpena aldatzen da, 2021. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena. **273 xedapena - 1 or.**

2020/11/25

- **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 102/2020 FORU DEKRETUA. azaroaren 24koa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz 2020. urtean abeltzaintza eta nekazaritza sektoreari laguntzeko minimis araubidearen barruko aparteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dituen, bigarren edizioa. **765 xedapena - 11 or.**

2020/11/26

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 100/2020 FORU DEKRETUA, azaroaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen duena, Administrazio Elektronikoren arloan. **761 xedapena - 12 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/11/24

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** - Gipuzkoako Industria Sidero-Metalurgikoaren hitzarmen kolektiboa. **6026 xedapena - 51 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/11/23

- 2020/1743 Aholkua (EB), 2020ko azaroaren 18ko Batzordearena, SARS-CoV-2ren infekzioa diagnostikatzeko antigenoen proba azkarrak erabiltzeari buruzkoa. 6 or. **6 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO